

Munduko Hizkuntzaren Ondarearen UNESCO Katedra UPV/EHU

Munduko hizkuntza-leihoak

HIZKUNTZA: MALINKERA

Malinkera elkarrekin oso lotuta dauden hizkuntza anitzen eta dialektoen taldeari deritzo. Hego-ekialdeko mandinga azpitaldean kokatzen dira eta aldi berean, hizkuntza nigero-kongolarren mande azpitaldearen barruan kokatzen dira. (*-ka* eta *-kan* atzizkiek jendeari eta beren hizkuntzari egiten diete lotura: *-kan* atzizkiak “hizkuntza” esan nahi du).

Ethnologue-n ustetan (Lewis, 2009; www.ethnologue.com), *malinkera* hizkuntzak, *mandinkera* hizkuntzarekin batera, mandingo deitzen den “makro-hizkuntza” bat osatzen dute. *Ethnologue*-n ustetan zazpi hizkuntza daude “makro-hizkuntza” honen barruan (baina beraien arteko bereizketak neurri handi batean zalantzazkoak dira): *mandinkera*, lehendabizi; eta gero mendebaldeko *malinkera*, *kita malinkera*; gehi ekialdeko *malinkera*, *konyanka malinkera*, *sankaran malinkera*, eta *forest malinkera*.

Hemen, *mandinkera* albo batera utziko dugu (ikus dagokion fitxa), eta *malinkeriari* (maninka edo malinkera) hizkuntzei egingo diogu arreta. *Malinkera* hizkuntzen barruan, sailkapen ugari egin daitezke eta egin ere egin izan dira. Zatiketa nagusia mendebaldeko *malinkeren* (ipar-ekialdean hitz egiten dena) (Senegal, Gambia, Guinea-Bissau eta Mali) eta ekialdeko *malinkeren* (hego-ekialdekoan mintzatzen dena) (Guinea, Sierra Leona, Liberia eta Boli Kosta) artean dagoena dela dirudi. Ekialdeko *malinkeren* barruan, aldaera gehiago proposatu dira, hala nola, kankan, sankaran, konyanka, forest maninka eta abar.

Aipatu beharrekoa litzateke baita *Ethnologue*-k “makro-hizkuntza” nola definitzen duen: “elkarrekin zerikusia duten hizkuntza batzuk non erabiltze testuinguru batzuetan hizkuntza bakartzat hartzen diren”. Nahiz eta hizkuntza edo aldaera desberdintzak har daitezkeen, hizkuntza horiek multzo berean sar daitezke eta hizkuntza bakartzat har daitezke; elkar banatutako ondarean eta hiztunen izaeran oinarrituz edota beste ezaugarri komunitan oinarrituz (hala nola, idazketa sistema eta literatura komun bat).

LURRALDEA ETA HIZTUNAK

Mendebaldeko malinkera. Mendebaldeko *malinkera* Senegaleko hego-ekialdean hitz egiten da gehienbat: 422.000 dira Senegalen hizkuntza honen hiztunak (*Ethnologue* 2006). Mendebaldeko *malinkera* Maliko mendebaldean ere hitz egiten da, *Ethnologue*-k hemen 100.000 hiztun daudela dio. Gambian ere badira hizkuntza honen hiztunak (3.300 hiztun inguru) eta Guinea-Bissauan ere bai. Ondorioz, ekialdeko *malinkeren* hiztun kopuru orokorra herrialde guztiak kontuan hartuta 525.300 ingurukoa da (*Ethnologue*). Hizkuntza honen dialekto nagusiak jahanka (Senegalen eta Gambian), eta kenieba maninka eta nyoxolonkan (Malin) dira.


Gainera, *kita malinkera* *Ethnologue*-n ustetan, Maliko “hizkuntza” bat da, eta berau ekialdeko *malinkeren* etiketa berean sar genezake. *Kita malinkeren* hiztun kopurua ekialdeko malinkakeraren hiztun kopuru osoa baino handiagoa da: 600.000. Hau izan daiteke *kita malinkera* hizkuntza beregain bezala hartzearen arrazoia. Bai geografikoki eta baita linguistikoki ere, *kita malinkakera* hizkuntza, banbara edo bamanankanetik gertuago dago: *kita* hiztunak %64ean ulertzen dira bamanankan hizkuntzaren hiztunekin.

Ekialdeko malinkera. Ekialdeko *malinkera*, hegoaldeko *malinkera*, maninka kankan edo *malinkera*/maninka(kan) bezala ere ezagutua, Gineako hizkuntza bat da nagusiki eta mendi eremutik oso zabaldua dago. *Ethnologue*-n arabera, 1986. urtean, ekialdeko *malinkeraren* hiztun kopurua, Ginean, 1.890.000 zen. 108.000 hiztun inguru daude Sierra Leonan eta zertxobait gehiago Liberian. Hiztun kopuru orokorra gutxi gora behera 2.030.000koa litzateke. Ekialdeko *malinkeranak* dialekto kopuru handia du. Hauen artean, bö, amana (Kouroussa-koa), kouloukalan, maninka-mori, eta wasulu aurkitzen dira. Ekialdeko *malinkeraren* eremu nagusia Kankan HIRIgunearen inguruko herrialdea da.

Ekialdeko *malinkera* Boli Kostan ere hitz egiten da; zehazki ipar mendebaldeko herrialdean, Mali eta Gineako mugetatik gertu. Hala ere, *Ethnologue-REN* ustez Boli Kostan hitz egiten den aldaera, forest maninka deiturikoa, hizkuntza beregaintzat har daiteke. Boli Kostako ekialdeko *malinkera* dena den, banbararen antzekoagoa da. Ekialdeko *malinkeranak* (forest maninka) 15.000 hiztun inguru ditu Boli Kostan.

Gainera, *Ethnologue*-k beste bi hizkuntza aurkezten ditu eta hauek beharbada ekialdeko *malinkeraren* barruan sar zitezkeen: zehazki, konyanka maninka eta sankaran maninka. Bi hizkuntza hauek gehienbat Ginean hitz egiten dira. Konyanka *malinkeranak* 128.000 hiztun inguru ditu Ginean (1986ko datuak) eta 39.200 hiztun Liberian (2006ko datuak), Ginearekin mugan. Sankaran *malinkerana* Ginean bakarrik hitz egiten da. 77.000 hiztun natibo inguru ditu (1986an erroldatuak).

Kankan-eko ekialdeko *malinkeranak* hurrengo antzekotasun lexikoa du beste aldaerekin: %92a wasulu aldaerarekin, %79a sankaran *malinkerana* aldaerarekin eta %72a konyanka *malinkerana* aldaerarekin.



Maparen iturria Uranga *et al.*, 2008 (*malinkera* hiztunen lurralde verde argiz dago mapa honetan).

HIZKUNTZAREN EGOERA

Malinkera hizkuntzen egoera soziolinguistikoa asko aldatzen da herrialde batetik bestera. Orokorrean, ekialdeko *malinkeraren* egoera (Ginean batik bat) hobegoa da mendebaldeko *malinkerarena* baino.

Guinean (Conakry), nahiz eta hizkuntza ofizial bakarra frantsesa izan, ekialdeko *malinkerak* hizkuntza nazionalaren estatusa dauka, Gineako kpelleren, susuren eta

tomaren (denak mande hizkuntzak), eta baita kissiren eta pularunqueren (atlantikoko azpifamiliari dagozkionak) antzera.

Hala ere, Senegalen, mendebaldeko *malinkerak* ez du hizkuntza nazionalaren estatusik ere. Berdina gertatzen da Malin. Kontutan hartu behar da *malinkera* Ginean hitz egiten dela gehienbat, eta ez dela Senegaleko edota Maliko hizkuntzarik hedatuena. Senegalen, europarra ez den eta hitzun gehiengokoa duen hizkuntza wolof da (atlantikoko hizkuntza bat), bestalde, Malin, banbara da (edo bamanankan). Hizkuntza hauek beraz, “herrialdeen arteko komunikaziorako” estatusa duten hizkuntzak dira, bakoitza bere herrialdean. Senegalen, biztanleriaren ia %90ak wolofa hitzegiten du, lehen hizkuntza edo bigarren hizkuntza bezala. Malin, bestetik, banbararen dialektoak biztanleriaren %80ak hitz egiten ditu gradu ezberdinetan. (Dena dela, banbara mendebaldeko *malinkeratik* gertu dago eta genetikoki lotura dute (biak mande hizkuntzak dira), izan ere, banbara estandarrak mendebaldeko *malinkeraren* eragina du).

Beraz, Ginean da *malinkerak* estatus gehien duen herrialdea eta hemen da *malinkera* kultura hizkuntza bezala gehien erabiltzen den tokia: hizkuntza nagusia da Gineako lurraldean. Izan ere, eskoletan *malinkeraren* alfabetatze materiala erabiltzen da (*Ethnologue*), eta hiztegiez gain nolabaiteko estandarizazioa ere badago. Gobernuak irratian erabilera izan dezan onartu du, eta bigarren hizkuntza da askorentzat (Sullivan 2004: 16). Dena dela, banbararekin alderatuz, adibidez, Malin, banbararen “estatus” ofiziala “askoz ere aurreratuago” dago Gineako *malinkera* baino (Sullivan 2004: 25). Gainera, Ginean, bariazio dialektal handia dago *malinkeraren* barruan.

Azkenaldian, ekialdeko *malinkera* latindar alfabetoan idazten da, aparteko karaktere batzuen laguntzarekin. Izan ere badago “ofiziala” den ortografia bat. Nolanahi ere, badago *malinkera* idazle talde eraginkor bat **N’Ko** grafia erabiltzen duena. Are eta gehiago, N’Ko alfabetoak (1949an mande hizkuntzetarako idazketa sistema indigena bezala asmatua) Gineako Kankan-en hasi zen erabiltzen, *malinkerarentzat* idazketa gisa (ekialdekoa).

HIZKUNTZAREN SAILKAPENA

Familia: niger-kongolarra. Azpifamilia: mandea. Taldea (genus): mendebaldeko mandea.

Talde honetako hizkuntzak askotan manding edo malinke izen generikoaz ezagutzen dira. Talde berdineko beste hizkuntza nagusiak (hau da, mendebaldeko mande hizkuntzak) dyula (Burkina Faso, Boli Kosta) eta banbara (Mali) dira. Gogoratu baita ere, lehenago aipaturiko mandinka (Senegal, Gambia eta mendebaldeko Mali). Talde honetakoak dira baita ere mendebaldeko maninkakan (Senegal, Gambia, Maliko mendebaldea) eta ekialdeko *malinkera* (Guinea etab.). Beste mande hizkuntza batzuk daude Ginean, hala nola: kono, kpelle, kuranko, susu, toma, eta yalunka. Maliko beste mande hizkuntza batzuk hauexek dira: bozo, sonike, and xaasonga.

Aurrerago aipatu den bezala, *Ethnologue*-k honako hau proposatzen du: ekialdeko *malinkera* eta mendebaldeko *malinkera* hizkuntza beregainak direla, baina era berean, mandingo deitzen den “macro-hizkuntza” bat osatzen dutela. Mandingo biztanleria, herrialde guztiak kontutan hartuta, 4.600.000 inguru hiztunera irits daiteke.

HIZKUNTZAREN EZAUGARRIAK

Beste mande hizkuntzak bezala, *malinkerak* edo *malinkerak* nagusiki honako ordena du: SA (subjektua-aditza) eta SOA (subjektua-objektua-aditza) eta aditzak esaldi bukaeran kokatzen dira. *Malinkeran* atzizkien erabilera oso ohikoa da eta postposizioak erabiltzen dira azken buruko menperatzaileak bezala.

IDAZKERA ETA AHOTSA

<http://spa.globalrecordings.net/program/C29111>

ERAKUNDEAK ETA ESTEKAK

<http://www.ikuska.com/Africa/Lenguas/maninka/index.htm>

<http://www.sil.org/silesr/2004/silesr2004-005.pdf>

http://www.ethnologue.com/show_map.asp?name=GN&seq=10

<http://www.nkoinstitute.com/>

Eastern Maninka (Guinea): http://wals.info/languoid/lect/wals_code_mnk

Western Maninka (Mali): http://wals.info/languoid/lect/wals_code_maw

ERREFERENTZIAK

Delafosse, Maurice (1929) *La langue mandingue et ses dialectes (malinké, bambara, dioula): Volumes I and II*. Paris: Librairie Orientaliste Paul Geuthner.

Haspelmath, Martin & Matthew S. Dryer & David Gil & Bernard Comrie (eds.) (2008) *The World Atlas of Language Structures Online (WALS)*. Munich: Max Planck Digital Library. <http://wals.info/>.

Lewis, M. Paul (arg.) (2009) *Ethnologue: Languages of the World*. Sixteenth edition. Dallas, Texas: SIL International. <http://www.ethnologue.com/>

Pioneer Bible Translators (2003) "Maninka sentence repetition test survey report: An investigation into the degree of bilingualism-proficiency between Maninka of Kankan and Malinké, Kuranko, Sankaran, Konyanka, as well as other dialects of Maninka". SIL International. <http://www.sil.org/silesr/2003/silesr2003-016.pdf>

Sullivan, Terrence D. (2004) "A preliminary report of existing information on the Manding languages of West Africa: Summary and suggestions for future research". SIL International. <http://www.sil.org/silesr/2004/silesr2004-005.pdf>

Uranga, B., Aierdi, X., Idiazabal, I., Amorrortu, E., Barreña, A., Ortega, A. (2008) *Hizkuntzak eta inmigrazioa - Lenguas e inmigración*. Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedra. Bilbo: Ikuspegi – Unesco Etxea – Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedra.